

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Benedikta Bergaretxe Elorza

*Elgeta,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Aranzeta Zearra auzoko Zezeaga Nagusixa baserrian (gaur galduta) jaio zen, amaren lehenengo ezkontzako laugarren umea. Aita gaztetan Aramaiotik Zezeaga baserrira etorritakoa zen, eta ama Goimendi auzoko Azula baserrikoa. Benediktak bederatzi hilabete zituela galdu zuen aita. Gerra denboran artasoroan lanean ziharduela tiroz hil zuten. Eskolara zortzi urtetik hamabira joan zen, baina etxean lanik ez zegoenetan bakarrik. Baserriaren zimenduak mugitu egin ziren, eta Benediktak gogoan du hormetako harriek eteten zirenean egiten zuten zarata. Etxea konpondu zuten arte ganbaran egin zuten lo. Garia erein, landu eta jotzerainoko lan guztiak azaltzen ditu urratsez urrats. Auzolanean zenbat lan egiten ziren, eta zein giro onean, azaltzen du. Auzo bereko Bekoetxe baserriko Joxe Arozenarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ELG-062

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-29
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Aita hil zioten soldaduek frontetik jaurtitako tiroz

- **Erref:** ELG-062/002
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:03:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Aita hil zioten gerratean, berak 9 hilabete zeuzkala. Soloan zebilela, Karabietatik tiroa jaurti zioten. Gero, ama berriz ezkondu eta beste lau ume izan zituen.

2. Astoan esnea errepidera ateratzen Eibarrera zihoan autobusera

- **Erref:** ELG-062/006
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:10:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Astoan ateratzen zituzten esneak errepidera, Jalotzabasua esaten zaion lekura, Leonen autobusera. Eibarrera eramaten zen esnea eta osteranzeko jeneroa, eta han erosten ziren etxean behar ziren gauzak.

3. Eskolara joateko astirik ez

- **Erref:** ELG-062/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:14:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Hamabi urte arte ibili zen eskolan. Eskola aurretik meza entzuten zuten sarri. Sagastitxo baserrira joaten ziren bazkaltzera. Eskola ondoren lana izaten zen baserrian. Anaiak gaueko eskolara joan ziren Uberara, baina bera ez.

4. Josten gusturago eskola ikasten baino

- **Erref:** ELG-062/009
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:16:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Josten ere ikasten zuten eskolan. Goizetik eskola eta arratsaldean eskuko lanak. Bordatzen oso ondo ikasi zuten. Izarak, mantelak, elizako oihalak eta abar apaintzen zituzten.

5. Mendiak oso garbi zeuden

- **Erref:** ELG-062/010
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:18:22

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lau behi eta idiak zituzten, eta beste abere batzuk ere bai. Idiak lanerako. Ira eta pinu-orria ekartzen zuten azpietarako. Oso ira ona egiten ei zen, mendia oso garbi baitzegoen. Abereek garbitzen zutelako, batetik, eta baserritarrek zaintzen zutelako, bestetik.

6. Iratan basoan

- **Erref:** ELG-062/012
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:22:02

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basora ira ebatera joaten zirenean, aldean eramaten zuten bazkaria. Artoa, piperrak eta arrautzak, sarri. Ogia ere bai gerora, baina gaztetan urri zegoen eta artoz moldatzen ziren. Igitaiaz ebakitzen zuten hasieran, eta segaz gerora. Gurdia kargatzen ere ibilita dago bera. Ira-gurdiaren atzean lera lotzen zen arrastaka ekartzeko.

7. Lastoa Arabatik ekarri behar

- **Erref:** ELG-062/014
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:24:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Etxeko lastoa eta belar ondua ez zen nahikoa izaten eta Arabatik ekartzen zen lastoa kamioian. Errepidetik etxera gurdian.

8. Satsari ilbeheran buelta eman behar

- **Erref:** ELG-062/015
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:24:42. **Bukatu:** 00:26:33

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Mineral pixka bat ere botatzen zitzaien zelaiei baina satsa zen ongarri nagusia. Satsari buelta eman behar izaten zitzaion, ilbeheran, ilberrian eman ez gero kea dariola hasten baitzen.

9. Garia ereiteko lurra prestatzen eta markatzen

- **Erref:** ELG-062/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:29:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

"Zopizarrarian" egiten zen golda pasatu aurretik: aitzurrez lurrazaleko zaborra garbitu. Gero "azatzak" egiten ziren, markak jartzen ziren soroan ondo erein ahal izateko. Erein, area pasatu eta gertu geratzen zen.

10. Garia jorratzen

- **Erref:** ELG-062/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:31:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Udaberrian, garia apur bat hazten zenean, "jorratu" egiten zen areaz, area astoak tiratuta gehienetan. Gero ongarria botatzen zitzaion, amoniakoa edo, piztu zedin.

11. Olo-landare txarrak gari artetik kentzen

- **Erref:** ELG-062/019
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:32:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Maiatzean "burura etortzen" ei da garia. Orduan olo txarrak kendu behar izaten ziren; taldean egiten zen, eta "esku-etena" esaten zitzaion kentze lanari. Gero, garia jotzen zenean garbi-garbia irteten zen.

12. Igitaiaz garia ebakitzen elkarri lagunduz. Auzolana

- **Erref:** ELG-062/020
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:32:45. **Bukatu:** 00:35:36

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Igitaiaz ebakitzen zuten garia; azken aldera sega-makinak agertu ziren. Etxez etxe ibiltzen ziren gari ebakitzen, elkarri lagunduz. Baserrien izenak aipatzen ditu.

13. Txanketean eta matxakaz gari-jotzen

- **Erref:** ELG-062/021
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:36:34

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Garia "txanketian" (harri baten kontra) jotzen zuten bera txikia zenean. Gero "matxakia" agertu zen, makina txiki bat.</p>

14. Auzolanean garia jotzeak

- **Erref:** ELG-062/023
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:39:36

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Atarian jotzen zuten. Etxekoek pixkanaka-pixkanaka, txanketean jotzen zutenean. Gero makinak sartu zirenean dena batera jotzen zen. Izara zuria ateratzen zen leihora eta lanera etortzeko seinalea izaten zen.

15. Matxakaz garia jotzen eta haize-errotaz garbitzen

- **Erref:** ELG-062/024
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:39:36. **Bukatu:** 00:42:22

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-jotze lanak zerrendatzen ditu. Matxakako lanak eta haren ingurukoak zelakoak ziren. Haize-makina handi batez garbitzen zen garia.

16. Gari-jotzearen ondoren ospakizun afaria

- **Erref:** ELG-062/025
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:42:22. **Bukatu:** 00:45:28

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gari-jotzen parte hartutako denek afaria egiten zuten, afari berezia. Lan gogorra zen gari-jotzea: bero, hautsa... Albergan garbitzen ziren zela-hala eta izara batez lehortzen. Jai-giro zoragarria sortzen zen. Kantuan, dantzan eta bertsoan egiten zuten.</p>

17. Etxearen oinarriak huts egin eta brintzatu

- **Erref:** ELG-062/027
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:48:26

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxearen oinarriak huts egin eta brintzatu egin zen. Zarata beldurgarriak ateratzen zituen zartiatzen zenean. Sabaian lo egiten egon ziren sei hilabetez.

18. Argindarra Brauliori deituta

- **Erref:** ELG-062/031
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:55:08

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Errekalden zegoen argindar-etxea eta errota, biak auzokoak. Ur gutxi egoten zen. Argia gauerako bakarrik ipintzen zen. Braulio zen arduraduna eta hari deitzen zioten argiari emateko. Irratia ere entzuten zuten.

19. Hanka erre zuen beheko sutan

- **Erref:** ELG-062/033
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:57:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Beheko sutan prestatzen zuten janaria. Benediktak hanka erre zuen behin, treberako lapikoa botata.

20. Aita txabilan haria egiten

- **Erref:** ELG-062/034
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:59:02

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Azula baserritik artilea ekarri eta txabilan egiten zuen aita haria. Amak ere bai inoiz goruaz. Galtzerdiak-eta egiten zituzten eskuz, baina jertserik-eta ez. Abarka sokak (trailak) egiten zituen Azulako osabak artile beltzez. Emakumeen galtzerdiak hari finagoz egiten ziren.

21. Abarkekin erromeriara

- **Erref:** ELG-062/035
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:59:02. **Bukatu:** 01:00:15

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Orduan abarkekin joaten ziren askotan erromeriara. Mantuneko tabernadendan aldatzen zituzten oinetakoak gehienetan. Bertan egiten zituzten erosketak gehienak ere.

22. Elgetan beraneante asko

- **Erref:** ELG-062/036
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:00:15. **Bukatu:** 01:03:00

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Elgetako tabernak eta dendak. Martintxonean boda asko egiten zen. Eibartik eta Bilbotik beraneante asko etortzen zen Elgetara, osasun arazoengatik, gehienbat.

23. Eguarbitzako Atxera txirikilan egitera

- **Erref:** ELG-062/038
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:05:50. **Bukatu:** 01:07:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Neska eta mutil elkartzen ziren jolaserako. Garizuman Eguarbitzako Atxera joaten ziren txirikilan egitera. Garizuma amaieran merienda egiten zuten txirikilan ibilitakoak.

24. Elgeta aldean erromeria asko

- **Erref:** ELG-062/039
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:07:40. **Bukatu:** 01:09:15

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Auzoko neska-mutil guztiak batera itzultzen ziren erromeriatik. Benedikta ezkondu zen urtean amaitu zen Elgetako plazako erromeria.

25. Guardia zibilek isuna astoa libre eramateagatik

- **Erref:** ELG-062/040
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:09:15. **Bukatu:** 01:12:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin etxetik Elgetara zihoala guardia zibilek isuna bota zioten astoa sokatik ez eramateagatik. "Morika" oso asto formala ei zen. Udaletxean ordaindu zuen isuna. Ez du gogoratzen zenbat. Gaur beste jakin izan balu ez zuen isuna sinatuko.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com